BASQUE TOUR turismoaren euskal agentzia agencia vasca de turismo

EUSKADI BASQUE COUNTRY

# IBILTUR MICE 2017-2016. – Kongresu eta biltzarretan parte hartzera Euskadira etorritako turisten profila eta portaera

2017ko urria – Dibulgazio-txostena

# IBILTUR MICE 2017-2016. – Conocimiento del perfil y comportamiento de las y los turistas asistentes a congresos y convenciones en Euskadi

Octubre 2017 – Informe divulgativo



Herri-baltzua EUSKO JAURLARITZA
Sociedad Pública del GOBIERNO VASCO

## EZAUGARRIAK

**Koordinazioa eta gainbegiratzea:**

Euskadiko Behatoki Turistikoa – Basquetour, S.A.

**Lan-zuzendaritza:**

Yolanda García Díez (Ikertalde grupo consultor)

**Talde idazlea:**

Yolanda García Díez (Ikertalde grupo consultor)
Julio A. Jiménez Arévalo

**Sorrera data:**

2017ko Urria

**Bertsioa:**

1

## CARACTERÍSTICAS

**Coordinación y supervisión:**

Observatorio Turístico de Euskadi – Basquetour S.A.

**Dirección de trabajo:**

Yolanda García Díez (Ikertalde grupo consultor)

**Equipo redactor:**

Yolanda García Díez (Ikertalde grupo consultor)
Julio A. Jiménez Arévalo

**Fecha de creación:**

Octubre de 2017

**Versión:**

1

BASQUETOUR, SAren jabetza dokumentua. Debekatuta dago berau kopiatzea, zati bat edo osorik, berariazko baimenik gabe.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A. Prohibida su reproducción parcial o total sin autorización expresa.

## Aurkibidea

Sarrera .......... 4

Batzar eta konbentzioetan parte hartzen duten turisten portaeraren azterketa deskribatzailea .......... 5

Egiten duten gastua .......... 14

Euskadiko batzar eta konbentzioetara etorri diren turisten tipologiak .......... 16

Fitxa teknikoa .......... 19

## Índice

Introducción .......... 4

Análisis descriptivo del comportamiento de las y los turistas asistentes a congresos/convenciones .......... 5

El gasto que realizan .......... 14

Tipologías de turistas asistentes a congresos y convenciones en Euskadi .......... 16

Ficha técnica .......... 19

## Sarrera

MICE turismoaren baitan, lan-, lanbide- edota elkartze-jarduerak negozio-bileren, batzarren, konbentzioen, pizgarri-bidaien edo antzekoen (jardunaldiak, topaketak, hitzaldiak, sinposioak, foroak, mintegiak, ikastaroak…) bidez egiteko bidaiak barne hartzen dituzten turismo-korronte guztiak sartzen dira.

MICE turismoarekin lotutako jarduerak negozio-aukerak sortu eta, oro har, itzelezko onurak ditu ekonomiarentzat. Izan ere, batez besteko gastu handiagoa sortu, turismoaren urtarokotasuna txikitu, helmugak aldatzea eragin, eta berrikuntza eta sormena sustatzen ditu.

Euskadiko Behatoki Turistikoa, turismo-sektoreari buruzko ezagutza sortzeaz eta hedatzeaz arduratzen den aldetik, 2016ko Urteko Zaintza Planean zehaztutako zenbait ikerketa-lerrotan lanean ari da Hain zuzen, eskariari eta eskaintzari buruzko ezagutzarekin lotutako eragiketak egiten ditu, aukera berriak identifikatzeko.

Eragiketa horietako bat IBILTUR da. Bi urtez behin egiten da eta 2014-2017 Euskal Estatistika Planeko estatistika-eragiketako bat da (eragiketaren kodea: 132612).

Spain Convention Bureau delakoak bilera-turismoaren bilakaerari eta MICE turistaren profilari eta portaerari buruzko azterketa bat egiten du urtero, Estatuko zenbait hiritan. Baina proiektu horrek ez du Euskadiko MICE jarduerari buruzko informazio adierazgarririk ematen. Hori dela eta, 2012. urteaz geroztik, IBILTUR eragiketak ikerketa-proiektu bat ere hartzen du barne, MICE turistaren profilari eta portaerari buruzko ezagutzan sakontze aldera. Hain zuzen, Euskadiko egoitza nagusietan egiten diren batzar eta konbentzioetan parte hartzen duten pertsonak dira ikerketa-xedea.

Txosten honetan eskaria aztertzen da, bidaiarien ezaugarri soziodemografikoak, bidaiaren definizioa, bidaia prestatzeko lanak, informazio-beharrak eta balorazioak kontuan hartuta. Gainera, informazio hori zenbait aldagairekin gurutzatzen da; esate baterako, ekitaldien egoitzekin, turistaren jatorriarekin eta gaua emateko establezimendu-motarekin.

Azterlanaren amaieran, Euskadiko batzar- eta konbentzio-turismoaren ezaugarriak aztertzen dira, eskaria segmentutan banatzeko, jarduerekin, bidaiaren ezaugarriekin eta informazio soziodemografikoekin lotutako orientazio nagusietan oinarrituta.

Dokumentu honetan aurkezten dugun azterketa IBILTURen laburpen txiki bat da, dokumentu osoa izan nahi ez gero Basquetourren eskatu dezakezu.

## Introducción

Turismo MICE hace referencia al conjunto de corrientes turísticas cuyo motivo de viaje está vinculado con la realización de actividades laborales, profesionales y/o asociativas a través de reuniones de negocio, congresos, convenciones, viajes de incentivo y otras reuniones similares a estas (jornadas, encuentros conferencias, simposios, foros, seminarios, cursos…).

La actividad relacionada con el turismo MICE se ha convertido en un motor de oportunidades de negocios, suministra inmensos beneficios a la economía en general, ya que genera en promedio un mayor nivel de gasto, reduce la estacionalidad, contribuye a la regeneración de los destinos, promueve la divulgación de conocimiento y potencia la innovación y la creatividad.

El Observatorio Turístico de Euskadi, en su papel de agente de generación y difusión de conocimiento del sector turístico, trabaja en diferentes líneas de investigación definidas en el Plan Anual de Vigilancia 2016. En concreto desarrolla operaciones asociadas al conocimiento de la demanda y la oferta que permitan identificar nuevas oportunidades.

Dentro de esas operaciones se encuentra IBILTUR que tiene una periodicidad bienal y es una de las operaciones estadísticas del Plan Vasco de Estadística 2014-2017 (código de la operación 132612).

El Spain Convention Bureau desarrolla un estudio anual sobre la evolución del turismo de reuniones, y el perfil y comportamiento del turista MICE de un conjunto de ciudades del Estado. Este proyecto no ofrece información representativa del conjunto de la actividad MICE en Euskadi. Por esta razón, desde el año 2012 la operación IBILTUR incluye un proyecto de investigación centrado en profundizar en el conocimiento del perfil y comportamiento del turista MICE. En concreto, el objeto de estudio son las y los asistentes a congresos y convenciones celebrados en las principales sedes de Euskadi.

En este informe se realiza una caracterización de la demanda en función de sus rasgos socio-demográficos, y de la definición de su viaje, incluyendo su preparación, sus necesidades de información y sus valoraciones, con el cruce de las variables como las sedes donde se celebran los eventos, el origen del turista y los diferentes tipos de establecimiento donde pernocta.

El estudio concluye con un análisis de las características del turismo de congresos y convenciones en Euskadi que permite la segmentación de la demanda a partir de sus principales orientaciones relativas a sus actividades, características de su viaje e informaciones sociodemográficas.

El estudio que se presenta es un pequeño extracto de IBILTUR, si está interesado en el documento completo puede solicitarlo a Basquetour.

## Batzar eta konbentzioetan parte hartzen duten turisten portaeraren azterketa deskribatzailea

2016an, Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Convention Bureau bulegoek emandako datuen arabera, 83.255 pertsona joan ziren Euskadin antolatutako batzar eta konbentzioetara. Eta txosten honetan ageri diren datuak haiei buruzkoak dira.

## Análisis descriptivo del comportamiento de las y los turistas asistentes a congresos/convenciones

En el año 2016, según datos facilitado por los Convention Bureau de Vitoria-Gasteiz, Bilbao y Donostia/San Sebastián, el número de asistentes a congresos y convenciones en Euskadi ascendió a 83.255. Y es a ellos a quien representan los datos facilitados en este informe.

### Motibazio subjektiboak

Batzar eta konbentzioetara joan diren pertsonek euren bidaiarekin lotutako zenbait ezaugarriren garrantzia baloratu dute 1etik 5era bitarteko eskala batean (1 garrantzirik txikiena duena, eta 5 garrantzirik handiena).

2012tik hona, alderdirik baloratuena (4,6) batzarraren edo konbentzioaren egitaraua izan da, espero daitekeenez. Hala ere, azpimarratu behar da 2012az geroztik gainerako ezaugarriek bilakaera positiboa izan dutela. Honako hauek dira aipatzekoak, besteak beste: batzarra egiteko aukeratutako lekua (2,1 2012an eta 4,4 2017-2016an) eta batzarraren edo konbentzioaren antolatzaileek programatutako aisia-jarduerak (2,1 2012an eta 4,1 2017-2016an). Izan ere, geroago ikusiko dugunez, batzarrak antolatzen dituzten enpresek gero eta aisia-jarduera gehiago proposatzen dituzte, eta horrek aisia-jardueren balorazio-mailak gora egitea eragin du.

### Motivaciones subjetivas

Los y las asistentes a congresos y convenciones han valorado el grado de importancia en una escala del 1 (menos importante) al 5 (más importante) de ciertos atributos relacionados con su viaje.

Desde el año 2012 hasta la actualidad el aspecto más valorado (4,6), como cabe esperar, ha sido el programa del congreso/convención. Sin embargo hay que subrayar la evolución positiva que han tenido desde 2012 el resto de atributos. Por ejemplo, destaca la sede donde se celebra el congreso (2,1 en 2012 a 4,4 en 2017-2016) y el programa social o actividades de ocio programadas por el congreso/convención (2,1 en 2012 a 4,1 en 2017-2016). Este último aspecto, puede estar relacionado con una mayor propuesta de actividades de ocio por parte de las empresas organizadoras de los congresos como se verá más adelante.

*1. grafikoa. Bidaiarekin lotutako alderdien garrantzia, 2017-2016, 2014(1 garrantzirik txikiena, eta 5 garrantzirik handiena).*
*Gráfico 1.- Valoración de la importancia de los aspectos relacionados con el viaje, 2017-2016, 2014 (escala del 1 menos importante al 5 más importante).*



## Batzar eta konbentzioetara joaten diren pertsonan profila

Euskadin egiten diren batzar eta konbentzioetara joaten diren pertsonen % 75 Estatukoak dira. 2014ko datua oso antzekoa izan zen, baina 2012koa, handiagoa (% 88). 2017-2016ko edizio honetan, 2014koan ez bezala, Donostian bildu ziren Estatuko parte-hartzaile gehien (% 80). Bilbon, nazioarteko parte-hartzaileen kopurua % 28koa izan da (2014an, berriz, % 17koa); nazioarteko parte-hartzaile gehien dituen hiria da. Gasteizek 2014ko proportzionaltasunari eutsi dio (Estatukoak, % 77, eta nazioartekoak, % 23).

Euskadiko batzar eta konbentzioetara joaten diren pertsona gehienak Kataluniatik (% 22), Madrildik (% 20) eta Andaluziatik (% 11) datoz. Joera horrek bere horretan jarraitzen du 2012. urtetik.

Generoaren ikuspuntutik erreparatuta, 2014az geroztik gizonen eta emakumeen proportzioa ia berdina da: % 51 gizonak dira, eta % 49 emakumeak.

Adinaren arabera aztertuz gero, 2014an bezala, batzar eta konbentzioetara joaten diren pertsonen batez besteko adina 40 urtekoa da. Gizonek 43 urte dituzte batez beste, hiru urte gehiago 2014an baino, eta emakumeek, 37, aurreko edizioan baino bi urte gutxiago.

Estatutik zein atzerritik Euskadiko batzar eta konbentzioetara datozen pertsonek batez besteko adin hori dute (40 urte).

Turisten prestakuntza-mailari erreparatuta, gehienek erdi- edo goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzte, baina haien proportzioa 5 puntu txikitu da 2014tik hona (% 90, eta, 2014an, % 95).

Jarduera ekonomikoari dagokionez, enplegua duten pertsonak nagusi dira (ia % 93), baina nabarmendu behar da ikasleen portzentajea handitzen ari dela (% 7 2017-2016an eta ia % 4 2014an).

Eta, aitortutako errenta kontuan hartuta, errenta ertainen proportzioak jarraitzen du nagusi izaten; dena den, errenta ertain/handien mailan dauden pertsonen kopurua handitu egin da 2014ko datuekin alderatuta (% 37, eta 2014an, % 28). Nazioarteko parte-hartzaileen % 10ek eta Estatuko parte-hartzaileen % 1ek errenta handia dutela aitortzen dute.

## Perfil de las y los asistentes a congresos y convenciones

El 75% de quien asiste a congresos y convenciones en Euskadi es de origen estatal, cifra igual a la recogida en 2014 e inferior a la de 2012 (88%). En esta edición de 2017-2016, al contrario que en la de 2014, Donostia/San Sebastián es la ciudad donde mayor número de público estatal se concentra (80%). Bilbao incrementa el número de asistentes internacionales a un 28% (frente al 17% en 2014), siendo la ciudad con mayor concentración de este mercado. Vitoria-Gasteiz mantiene su proporcionalidad con la de 2014 (77% estatales-23% internacionales).

Las Comunidades Autónomas que contribuyen con un mayor número de asistentes a congresos y convenciones, son Cataluña (22%), C. Madrid (20%) y Andalucía (11%). Esta tendencia se repite desde 2012.

Desde el punto de vista del género, se observa que desde 2014 la proporción de hombres y mujeres se iguala prácticamente: 51% de hombres y 49% de mujeres.

En el análisis por edad, al igual que en 2014, la edad media de las personas asistentes a congresos y convenciones es de 40 años. Los hombres tienen de media 43 años, 3 años más que en 2014, y las mujeres 37, dos años menos que en la edición anterior.

Tanto las y los asistentes a congresos y convenciones de origen estatal como las y los de origen internacional se sitúan en la media de edad (40 años) sin diferencias entre ellos.

En cuanto al nivel formativo de las y los turistas, sigue siendo mayoritaria la presencia de asistentes que han cursado estudios universitarios medios o superiores , aunque baja 5 puntos desde 2014. (90% frente al 95% de 2014).

Respecto a la actividad económica, predominan las personas ocupadas (casi el 93%), pero destaca el incremento en el porcentaje de estudiantes (un 7% en el año 2017-2016 frente al casi 4% de 2014).

Y en cuanto al nivel de renta declarada, se mantiene como mayoritaria la proporción de rentas medias, no obstante hay un mayor número que se sitúa en el estrato de renta media/alta respecto a 2014 (37% frente a 28%). El 10% de las y los asistentes internacionales declaran un nivel de renta alta frente al 1% de las y los estatales.

## Nola iristen diren, non hartzen duten ostatu, eta zenbat egun geratzen diren

Edizio honetan ere, hegazkina da batzar eta konbentzioetara etortzen diren gehienek (% 55) erabiltzen duten garraiobide nagusia. Bestalde, pixka bat handitu da (% 33, eta, 2014an, % 31) ibilgailu pribatuaren erabilera.

Argi dago hegazkinaren erabilera jatorriaren mendean dagoela. Nazioarteko parte-hartzaileen % 94ren garraiobidea da. Estatuko parte-hartzaileen garraiobide nagusiak, berriz, hegazkina eta automobila dira (hurrenez hurren, % 42 eta % 43).

Nazioarteko parte-hartzaileen artean, hegazkinaren erabilera 5 puntu handitu da. Eta ia proportzio berean (4 puntu) handitu da autoaren erabilera Estatuko parte-hartzaileen artean.

Hiriak banaka aztertuz gero, aurreko edizioko datuak ez dira asko aldatu: Gasteizko batzar eta konbentzioetara joaten diren turisten garraiobiderik erabiliena ibilgailu pribatua da (% 60); eta Bilboko eta Donostiako batzar eta konbentzioetara joaten direnen garraiobide nagusia hegazkina da (hurrenez hurren, % 61 eta % 50).

## Como llegan, donde se alojan y cuántos días dura su estancia

Se mantiene el avión como el medio de transporte principal utilizado por la mayoría de las y los asistentes a congresos y convenciones (55%). Y se observa un ligero aumento (33% frente al 31% de 2014) del uso del vehículo privado.

Como no podía ser de otra forma, el uso del avión se asocia al origen. Es el transporte del 94% de las y los asistentes internacionales, mientras que las personas participantes estatales se reparten entre el avión (42%) y el coche (43%).

Se ha incrementado el uso del avión entre las y los internacionales en 5 puntos porcentuales. Casi en la misma proporción (+4 puntos) lo hace el uso del coche entre las y los asistentes estatales.

Por ciudades, reflejando prácticamente los datos de la edición anterior, el vehículo privado es el de mayor uso entre las y los turistas asistentes a congresos y convenciones en Vitoria-Gasteiz (60%). Por su parte, las y los asistentes en Bilbao y Donostia/San Sebastián utilizan el avión con un 61% y un 50% respectivamente.

*2. grafikoa. Euskadira iristeko garraiobide nagusia, batzarra edo konbentzioa antolatzen den hiriaren arabera, 2017-2016*
*Gráfico 2.- Medio de transporte principal hasta Euskadi según ciudad donde se celebra, 2017-2016*




Ia parte-hartzaile guztiek hoteletan hartzen dute ostatu. Establezimenduaren kategoriari dagokionez, batzar eta konbentzioetara etortzen diren turistek kategoriarik handieneko hotelak (4 eta 5 izarrekoak) aukeratzen dituzte. Hala ere, haien proportzioak behera egin du aurreko ediziotik hona (% 55 eta, 2014an, % 59).

Establezimendu-motak lotura handia du batzarra egiten den hiriarekin. Esate baterako, Bilbon, parte-hartzaile gehienek (% 52) 4 eta 5 izarreko hoteletan hartzen dute ostatu. Gasteizen beste hirietan baino handiagoa da 1 eta 2 izarreko hotelak erabiltzen dituztenen portzentajea (% 28). Donostian, parte-hartzaileek 3 eta 4 izarreko hoteletan ostatu hartu nahiago dute.

Prácticamente la totalidad de asistentes se alojan en establecimientos hoteleros. En cuanto a la categoría del establecimiento donde pernoctan, las y los turistas asistentes a congresos y convenciones, que se alojan en hoteles, siguen decantándose por los de mayor categoría (4 y 5 estrellas) aunque con un leve descenso respecto a los datos de 2014 (55% frente a 59%).

El tipo de establecimiento está muy asociado a la ciudad donde se celebra el congreso. Así en Bilbao la mayoría de las personas participantes pernoctan en hoteles de 4 y 5 estrellas (52%), mientras que en Vitoria-Gasteiz, destacan respecto a la media las personas que lo hacen en hoteles de 1 o 2 estrellas (28%). En Donostia/San Sebastián los y las asistentes prefieren alojarse en hoteles de 4 y 3 estrellas.

*3. grafikoa. Ostatu hartzeko aukeratutako establezimendua, batzarra edo konbentzioa egiten den hiriaren arabera, 2017-2016*

*Gráfico 3.- Tipo de establecimiento donde se aloja según ciudad donde se celebra el congreso/convención, 2017-2016*




2014an bezala, Euskadin emandako ostatu-gauen batez besteko kopurua, baita aisiaren ondoriozkoak ere, 3,3 da. Batzarrarekin edo konbentzioarekin zuzenean lotutako batezbestekoa 3 egunekoa da.

Batzarren edo konbentzioen ondorioz, Estatuko parte-hartzaileek 2,9 ostatu-gau eman dituzte batez beste, eta atzerriko pertsonek, berriz, 3,6.

Gasteizen, ostatu-gauen batez besteko kopurua sei hamarren txikitu da, 2014ko datuekin alderatuta. Donostian, ostatu-gauen kopuruak bere horretan jarraitzen du: batez beste, bisitak 3,4 egun irauten du. Bilbon, hamarren bat handitu da kopuru hori (3,3).

Al igual que en 2014, el número medio de pernoctaciones en Euskadi, incluyendo las pernoctaciones por ocio es de 3,3. Las directamente relacionadas con el congreso/convención son 3 días.

El número de pernoctaciones medias motivadas por el congreso/convención es de 2,9 entre las personas asistentes estatales y de 3,6 entre las personas extranjeras

Disminuye en 6 décimas la media de pernoctaciones en Euskadi entre quienes se alojan en Vitoria-Gasteiz respecto a 2014. Se mantienen en Donostia/San Sebastián con 3,4 días de duración de la visita y aumenta una décima en Bilbao (3,3).

*4. grafikoa. Ostatu-gauak Euskadin, batzarrak edo konbentzioak egiten diren hirien arabera, 2017-2016*

*Gráfico 4.- Total de pernoctaciones en Euskadi según ciudad donde se celebran los congresos/convenciones, 2017-2016.*



## Aisia-jarduerarik egiten dute bisitan zehar?

Batzarrera edo konbentziora joan aurretik Euskadin egin daitezkeen aisia-jarduerei buruzko informazioa jaso edo bilatu duten parte-hartzaileen kopuruak gora egin du: % 37 zen 2014an, eta % 69 izan da 2017-2016an.

Horren ondorioz, batzarrera edo konbentziora joateaz gain aisia-jardueraren bat egiten duten parte-hartzaileen kopurua handitu egin da: 2012an, % 68 ziren, eta, egun, % 83 dira.

Batzarrak antolatzen dituzten enpresek aisia-jarduerak ere proposatzea garrantzitsua da egonaldian horrelako jardueraren bat egin duten pertsonentzat.

2014an jasotako datuekin alderatuta, batzarrak antolatzen dituzten enpresek proposatutako aisia-jardueretan, Estatuko turisten % 81ek hartu du parte; 2014. urtean, % 27k hartu zuen parte. Atzerriko turisten artean, egungo portzentajea % 66koa da, eta 2014an, berriz, % 41ekoa izan zen.

Hiriak banan-banan aztertuz gero, Gasteizen batzarrak antolatzen dituzten enpresek aisia-jardueren % 84 proposatu dute, aurreko urteetan bezala. Bilbon eta Donostian, berriz, hazkundea oso handia izan da: Bilbon, % 70, eta, 2014an, % 22, eta Donostian, % 87, eta, 2014an, % 35.

Bilboko batzar eta konbentzioetara joaten diren pertsonen % 79k egiten ditu aisia-jarduerak. Beste bi hiriburuetan, kontrako jokabideak ikusten dira: Donostian, parte-hartzaileen % 94k egiten ditu horrelako jarduerak (2014an, % 60 izan ziren); Gasteizen, berriz, askoz pertsona gutxiagok egiten ditu, % 47k hain zuzen (aurreko edizioan, % 74k egin zituen).

Hiru hiriburuetan, aisia-jarduera nagusiak hiri-turismoarekin eta gastronomiarekin lotuta daude.

## ¿Realizan actividades de ocio durante su visita?

El número de asistentes a congresos y convenciones, que en su lugar de origen han recibido o buscado información acerca de las actividades de ocio que podía realizar en Euskadi ha aumentado de un 37% en el año 2014 a un 69% en el año 2017-2016.

Como consecuencia, el número de asistentes a congresos y convenciones que realiza alguna actividad de ocio durante su estancia sigue aumentando del 68% que lo hacía en 2012 al 83% de la oleada actual.

La participación de las empresas organizadoras de congresos en la propuesta de actividades de ocio es importante entre quienes han realizado alguna actividad de este tipo durante su estancia.

Comparando con las cifras recogidas en el 2014, la organización del congreso ha participado en la propuesta de actividades de ocio en el 81% de los casos de turistas estatales que las han realizado frente al 27% del año 2014. Entre el público extranjero el porcentaje actual es del 66% frente al 41%.

En el análisis por ciudades, Vitoria-Gasteiz mantiene en el 84% la participación de las empresas organizadoras de los congresos en las propuestas de actividades, mientras que tanto en Bilbao como en Donostia San/Sebastián el incremento es espectacular. En Bilbao un 70% frente al 22% de 2014 y en Donostia/San Sebastián un 87% frente al 35%.

Entre las y los asistentes a congresos y convenciones en Bilbao, se mantiene el porcentaje de participantes que realizan actividades de ocio en el 79%. En las otras dos capitales se observan comportamientos opuestos: mientras que en Donostia/San Sebastián aumenta al 94% (frente al 60% de 2014), las y los asistentes en Vitoria-Gasteiz las realizan en menor medida 47% (cayendo del 74% de la edición previa).

Las tres capitales tienen como principales actividades las asociadas al turismo urbano y a la gastronomía.

*5. grafikoa. Euskadiko egonaldian egindako aisia-jarduerak, batzarrak eta konbentzioak egiten diren hiriaren arabera, 2017-2016*

*Gráfico 5.- Actividades de ocio realizadas en su visita por Euskadi según ciudad donde se celebran los congresos/convenciones, 2017-2016*




2014an bezala, gastronomia, hiriko turismoa eta kultura-turismoa dira batzar eta konbentzioetara joaten diren pertsonen jarduera nagusiak, Estatuko zein atzerriko parte-hartzaileenak.

Batzar eta konbentzioetara joan diren pertsonek turismo-baliabide hauek aipatu dituzte bereziki:

- Ondare-baliabideak: Kursaal Elkargunea, Azkuna Zentroa eta Haizearen Orrazia.
- Ibilbideak: Donostiako Alde Zaharretik kanpoko lekuak, Bilboko itsasadarra, kostaldeko herriak eta Bilboko Alde Zaharretik kanpoko tokiak.
- Hirigune historikoak: Donostiako Alde Zaharra eta Bilboko Alde Zaharra.
- Museoak: Guggenheim Museoa, San Telmo Museoa eta Aquariuma.
- Hondartzak: Kontxa, Zurriola eta Ondarreta.
- Gastronomia: pintxoak, jatetxeak, sagardotegiak eta upeltegiak.
- Hiriko parke eta mendiak: Igeldo mendia, Bilboko parkeak eta Urgull mendia.
- Ikuskizunak eta kontzertuak: Kafe Antzokia, San Mames futbol-zelaia eta Principal antzokia.
- Txangoak eta bisita gidatuak: turismo-ontziak.
- Beste batzuk: bainuetxeak, talasoterapia eta kirol-jarduerak.
- Mendiak eta parke naturalak: Urdaibai, Gorbeia eta Urkiola.
- Merkatuak: Erriberako merkatua eta Bretxa merkatua.

Al igual que en 2014 la gastronomía, el turismo en la ciudad y el turismo cultural son las actividades principales que realizan las y los asistentes a congresos y convenciones tanto estatales como extranjeros.

Los recursos turísticos que más han declarado visitar los y las asistentes a congresos y convenciones son:

- Entre los recursos patrimoniales: Kursaal, Centro Azkuna y Peine del Viento
- Paseos por localidades: Resto de Donostia (excepto Parte Vieja), la Ría de Bilbao y Localidades de costa y Resto de Bilbao (excepto Casco Viejo)
- Cascos Históricos: Parte Vieja de Donostia/San Sebastián, Casco Viejo de Bilbao
- Museos: Guggenheim, Museo San Telmo, Aquarium
- Paseos, estancias en playas: La Concha, La Zurriola y Ondarreta
- Gastronomía: Pintxos, comidas en restaurantes, sidrerías, bodegas
- Parques y montes urbanos: Monte Igeldo, parques de Bilbao, Monte Urgull
- Espectáculos, conciertos: Café Antzokia, Estadio San Mamés, Teatro Principal
- Excursiones, visitas guiadas: Barcos turísticos
- Otras: balnearios, talasoterapia, actividades deportivas
- Montes, parques naturales: Urdaibai, Gorbeia, Urkiola
- Visita a mercados: mercado de la Ribera y mercado de la Bretxa

Gehien bisitatutako baliabideak eta lekuak, kategorietan sailkatu gabe, honako hauek dira: Guggenheim Museoa (bisiten % 11), Donostiako Alde Zaharra (% 8) eta Kursaal Elkargunea (% 7). Guztira, batzar eta konbentzioetara joan diren pertsonek 90 turismo-baliabide bisitatu dituzte, gutxi gorabehera.

El ranking de recursos y lugares más mencionados, sin agrupar por categorías, lo lidera el museo Guggenheim que mueve el 11% de las visitas, seguido de la Parte Vieja de Donostia/San Sebastián (8%) y el Kursaal (7%). En total se han identificado aproximadamente 90 recursos turísticos que han sido motivo de visita por las y los asistentes a congresos y convenciones.

*6. grafikoa. Euskadiko batzar eta konbentzioetara joan diren pertsonek gehien bisitatutako 10 lekuak, kategorietan sailkatu gabe, 2017-2016. Erantzun anitza*

*Gráfico 6. Ranking de los 10 lugares, sin agrupar por categorías, más visitados por las y los asistentes a congresos y convenciones en Euskadi, 2017-2016. Respuesta múltiple*




## Nola baloratzen dituzte ostatu hartzeko aukeratutako hiriak?

1etik (baloraziorik txikiena) 5era (baloraziorik handiena) bitarteko eskala batean, eta hiriari buruzko zenbait alderdi kontuan hartuta, batzarrak eta konbentzioak egiten diren hirien balorazioaren batezbestekoa 4,7 da; 2014an baino hamarreko bat txikiagoa.

Donostiak du baloraziorik handiena (4,9), eta, ondoren, Bilbo (4,6) eta Gasteiz (4,3) daude.

Gasteizen ostatu hartzen duten turistek gehien balioesten duten alderdia garbitasuna da (4,5), eta gutxien balioesten dutena, establezimenduen kalitate/prezio erlazioa (3,7). Bilbon, hiri-segurtasuna da alderdirik baloratuena (4,8), eta establezimenduen kalitate/prezio erlazioa, baloraziorik txikiena lortu duena (4,1). Donostian ostatu hartzen dutenen ustez, sarbideak eta komunikazioak dira gehien baloratutako ezaugarria (4,8), eta gutxien baloratutakoa, berriz, kultura-eskaintza (3,6).

Oro har, hiru hirietan, establezimenduen kalitate/prezio erlazioa eta kultura- eta aisia-eskaintza eskasa dira baloraziorik txikiena duten alderdiak.

## ¿Cómo valoran las ciudades donde se alojan

En una escala del 1 (menos valorada) al 5 (más valorada) el promedio de valoración de las ciudades donde se celebran los congresos y convenciones, teniendo en cuenta diferentes aspectos relativos a la ciudad, alcanza un 4,7: una décima menos que en 2014.

La mejor valorada es Donostia/San Sebastián (4,9), seguida por Bilbao (4,6) y Vitoria-Gasteiz (4,3).

El aspecto más valorado por las y los turistas que se alojan en Vitoria-Gasteiz es la limpieza (4,5) y el menos valorado la relación calidad-precio de los establecimientos (3,7). En el caso de Bilbao la seguridad ciudadana (4,8) es el aspecto mejor valorado y la calidad-precio de los establecimientos (4,1) la peor. Para quien se aloja en Donostia/San Sebastián el atributo más valorado son los accesos y comunicaciones (4,8) y el peor la oferta cultural (3,6).

En líneas generales en las tres ciudades los aspectos peor valorados son la relación calidad-precio de los establecimientos y la falta de oferta cultural y de entretenimiento.

*7. grafikoa. Hiriari buruzko alderdien balorazioa, batzarrak eta konbentzioak egiten diren hiriaren arabera, 2017-2016 (1etik 5era bitarteko eskala). Erantzun anitza*

*Gráfico 7.- Valoración de aspectos relativos a la ciudad según ciudad donde se celebran los congresos/convenciones, 2017-2016 (escala de 1 menos a 5 más) Respuesta múltiple*




1etik (ez, segurtasun osoz) 5era (bai, segurtasun osoz) bitarteko eskala batean, batzar eta konbentzioetara etorri diren pertsonek, Estatukoek zein atzerrikoek, 4,7 batekin gomendatuko lukete hiria horrelako ekitaldietara joateko. Puntuazio berarekin gomendatzen dute hiria aisia-helmuga gisa. Bi kasuetan, balorazio hori bi hamarren txikitu da 2014az geroztik.

Estatuko zein atzerriko parte-hartzaileek 4,8 batekin gomendatuko lukete Euskadi aisia-helmuga gisa; 2014an lortutako puntuazio berarekin, alegia.

## Euskadira itzuliko lirateke?

Galdera horri erantzuteko, segurtasun osoz itzuliko direnak hartuko dira *lehen mailako erakarpen-publikotzat. Bigarren mailako erakarpen-publikoa* seguru asko baina irmotasunik gabe itzuliko direla adierazten dutenek osatuko dute. Eta, azkenik, *erakarri ezin den publikotzat* itzuliko ez direla segurtasun osoz esaten dutenak eta zalantzan daudenak edo seguru asko itzuliko ez direnak hartuko ditugu.

Euskadira batzar edo konbentzio batera etorri direnak aisiarako itzultzeko posibilitatea nabarmen txikitu da 2012az geroztik.

En una escala del 1 (no, con total seguridad) al 5 (sí, con total seguridad) las personas asistentes a congresos y convenciones tanto estatales como internacionales recomendarían con un 4,7 la ciudad donde se ha celebrado el congreso como destino para asistir a este tipo de eventos y con la misma puntuación la recomendación de la ciudad como destino de ocio. Esta valoración ha descendido dos décimas desde 2014 en ambos casos.

En el caso de la recomendación de Euskadi como destino de ocio, tanto estatales como extranjeros la recomendarían con un 4,8; misma puntación que la obtenida en 2014.

## ¿Volverían a Euskadi?

Para dar respuesta a esta cuestión se va a considerar, como *público de captación primario* a quienes afirman que van a volver con total seguridad. El *público de captación secundario*, queda constituido por quienes declaran que probablemente volverán pero no lo afirman con rotundidad. Y, por último, como *público no captable*, quienes afirman con seguridad que no volverán y quienes dudan o no lo creen probable.

La posibilidad de que quienes han visitado Euskadi por asistencia a un congreso/convención lo hagan de nuevo por motivos de ocio ha descendido significativante desde el año 2012.

*8. grafikoa. Publiko-mota, Euskadira aisia dela eta itzultzeko asmoaren arabera (2017-2016, 2014, 2012)*

*Gráfico 8. Tipo de público según la intención de volver a Euskadi por motivaciones de ocio (2017-2016, 2014, 2012)*




Hiriaren arabera, Bilboko batzar eta konbentzioetara joan direnen % 61ek uste du posiblea edo ziurra dela Euskadira aisiak erakarrita itzultzea; 2014an, % 84k uste zuen. Donostian, % 39k esaten du, baina, 2014an, % 82k adierazi zuen. Gasteizen ere itzultzeko asmoa txikitu zen % 69tik % 36ra.

Bestalde, Euskadira itzultzeko asmoa dutenen (% 52) artean, bisita luzatu egiten da. Hain zuzen, 6 egunekoa izan da, eta, 2014an, berriz, 4 egunekoa izan zen. Estatuko pertsonen bisita 4 egunetik 6 egunera luzatu da, eta atzerrikoena, 5,5etik 6,5era.

Según ciudades, el 61% de las y los asistentes a Bilbao creen probable o seguro que volverán a Euskadi por motivos de ocio frente al 84% que lo creía en 2014. En el caso de Donostia/San Sebastián lo afirman el 39% frente al 82% que lo hacía en 2014. En Vitoria-Gasteiz desciende la intención de volver al 36% frente al 69%.

Por el contrario, entre quienes tienen pensando volver a Euskadi (52%) la duración de la visita aumenta a 6 días frente a los 4 días del año 2014. Se incrementa de 4 a 6 el número de días entre las y los estatales y de 5,5 a 6,5 entre las personas extranjeras.

## Egiten duten gastua

Kalkuluen arabera, Euskadiko batzar eta konbentzioetara etorri diren pertsonen **guztizko gastua** 87.178.000 € ingurukoa izan da. 2014an, zenbateko hori 56.276.000 €-koa izan zen.

Ostatu hartzeko aukeratutako hiriaren arabera, hau da egindako gastua:

- Gasteiz: 1.338.000 €
- Bilbo: 54.674.000 €
- Donostia: 31.166.000 €

**Pertsona bakoitzak Euskadin egunero egindako batez besteko gastua,** ostatua barne, 133 €-koa izan da, eta, 2014an, berriz, 129 €-koa zen.

- Gasteizen, 64 €, eta 2014an, 110 €.
- Bilbon, 144 €, eta 2014an, 127 €.
- Donostian, 126 €, eta 2014an, 139 €.

Euskadiko gastuaren portzentajearen banaketari erreparatuz gero, nabarmentzekoa da aisiak Donostiako batzar eta konbentzioetara joaten direnen gastuan duen garrantzia (% 38). Lehenago azaldu dugunez, otorduetatik kanpo kontsumitutako pintxoen gastuak ere sartzen dira kontzeptu horretan.

## El gasto que realizan

Se estima un **volumen total del gasto** realizado por las y los asistentes a congresos y convenciones en Euskadi en un entorno de 87.178.000€. En 2014 esta cifra alcanzaba los 56.276.000€.

El gasto efectuado por las y los asistentes según la ciudad en que se alojan se estima en:

- Vitoria-Gasteiz. 1.338.000€
- Bilbao: 54.674.000€
- Donostia/San Sebastián:31.166.000€

El **gasto medio por persona y día en Euskadi**, incluyendo el alojamiento, es de 133€ frente a los 129€ de 2014.

- 64€ frente a 110€ en 2014 en Vitoria-Gasteiz
- 144€ frente a 127€ en 2014 en Bilbao
- 126€ frente a 139€ en 2014 en Donostia/San Sebastián

Respecto a la distribución porcentual del gasto en Euskadi, destaca entre las personas asistentes a congresos y convenciones en Donostia/San Sebastián el peso que tiene el apartado de ocio (38%). Como se ha comentado anteriormente este concepto incluye también los gastos efectuados en pintxos fuera de las comidas.

*9. grafikoa. Euskadin egindako gastu-kontzeptuen portzentajezko banaketa, batzarrak eta konbentzioak egiten diren hiriaren arabera, 2017-2016*

*Gráfico 9.- Distribución porcentual de los conceptos de gasto realizado en Euskadi según ciudad donde se celebran los congresos y convenciones, 2017-2016*



Gastu horren banaketa eta 2012koa oso antzekoak dira. 2014an, parte-hartzaileek, galde-sortari erantzutean, gastronomiarekin lotutako jardueretan egindako gastuak elikadura-gastutzat hartu zituzten, eta ez aisia-jardueratzat; hortaz, ez da erraza urte horretako emaitzak gainerako urtekoekin alderatzea. Edonola ere, gastronomia, otorduetatik kanpoko elikaduraren edota aisiaren ataletan, partidarik garrantzitsuena da; hain zuzen, gastu osoaren ia % 75 da.

La distribución de este gasto en sus diferentes conceptos es muy similar a la observada en 2012. En 2014 se detectó que las y los participantes al responder al cuestionario consideraron los gastos en actividades relacionadas con la gastronomía como gastos realizados en alimentación y no como actividad de ocio por lo que los resultados son difícilmente comparables. De cualquier modo la gastronomía, en su apartado de alimentación o/y ocio fuera de las comidas, es la partida más importante suponiendo prácticamente el 75% del gasto.

*10. grafikoa. Euskadin egindako gastu-kontzeptuen banaketa (2017-2016, 2014, 2012)*
Gráfico 10.- Distribución de los conceptos de gasto realizado en Euskadi (2017-2016, 2014, 2012)




Pertsona bakoitzak Euskadin egunero batez beste egindako gastua, jatorrian ordaindutako ostatu-gastuak barne, 131 €-koa izan da Estatuko parte-hartzaileen kasuan, eta 140 €-koa atzerrikoen kasuan. 2014an, gastua 124 €-koa izan zen Estatukoen kasuan, eta 145 €-koa atzerrikoen kasuan.

2014ko datuei dagokienez, Estatuko eta atzerriko parte-hartzaileek erosketetan egindako gastuaren portzentajeak gora egiten du (hurrenez hurren, % 8tik % 13ra eta % 13tik % 17ra).

El gasto medio por persona y día en Euskadi, incluyendo los gastos de alojamiento pagados en origen, es de 131€ en el caso de las y los asistentes estatales y de 140€ en el de las y los extranjeros. Este mismo dato en la edición de 2014 era de 124€ para estatales y 145€ para extranjeros.

Respecto a los datos de 2014 se incrementa el porcentaje de gasto en compras tanto para estatales (13% frente a 8%) como para internacionales (17% frente al 13%).

## Euskadiko batzar eta konbentzioetara etorri diren turisten tipologiak

Azterketatik ondorioztatzen denez, sei turista-mota etortzen dira Euskadiko batzar eta konbentzioetara. Mota bakoitzeko turistek oso antzeko jokabidea dute, baina jokabide horrek ez du zerikusirik beste motetako jokabideekin.

**1. mota. - (% 22) Estatutik Donostiako mediku- eta osasun-arloko batzar eta konbentzioetara etorri diren pertsonak.**

Mota horretako pertsona guztiek Donostiako ekitaldian hartu dute parte. Mota horren ezaugarri nagusiak hauek dira: pertsona gehienak mediku- eta osasun-arloko batzar eta konbentzioetara joaten dira, eta guzti-guztiak Estatukoak dira. Hirian dauden bitartean, askok hiriko gastronomiarekin eta turismoarekin lotutako jarduerak egiten dituzte. Cluster horretan, euren burua errenta ertainekotzat hartzen duten pertsonak nagusi dira.

Hona hemen mota horren beste ezaugarri bat: zenbat eta handiagoa izan adin-taldea, orduan eta batzarkide gehiago daude. Horrenbestez, 45 eta 54 urte bitarteko adin-tartea da parte-hartzaile gehien dituena.

Mota horretan, parte-hartzaile gehienak emakumeak dira.

Ostatu-mota asko aukeratzen dituzten arren, 4 eta 5 izarreko hotelak dira erabilienak.

Gehienak Euskadin egondakoak dira, eta Euskadira aisia bila ez itzultzeko asmoa nagusi da haien artean.

**2. mota. - (% 20) Estatutik Gasteizko batzar eta konbentzioetara etorri diren eta aisia-jarduerarik egin ez duten pertsonak.**

Mota horren barruko pertsonek Gasteizko batzar eta konbentzioetan hartzen dute parte, oro har. Estatukoak izaten dira, eta, beraz, haien jatorriarekin oso lotuta dago ekitaldira joateko erabilitako ibilgailu nagusia: autoa.

Azpimarratu behar da bertako parte-hartzaileen (Euskadi) kopurua handiagoa dela beste motetan baino. Horrek zenbait ondorio ditu, eta hau da deigarrienetako bat: aisia-jarduerak egiten ez dituzten turistak dira. Kultura-aisiako, gastronomia-turismoko eta hiri-turismoko jarduerek oso garrantzi txikia dute.

Mota horretako parte-hartzaileen artean, asko dira aldez aurretik Euskadin izan direnak, eta aisia dela eta itzultzeko probabilitatea txikia da.

Talde horretan, gizonak dira nagusi, eta parte-hartzaile gehienak 25 eta 44 urte bitartekoak dira.

## Tipologías de turistas asistentes a congresos y convenciones en Euskadi

Del estudio se extraen 6 clases de turistas asistentes a congresos y convenciones en Euskadi con comportamiento muy similares entre los que conforman el grupo pero muy diferenciados de quienes pertenecen a otro conjunto.

**Clase 1.- (22%) Asistentes estatales a congresos y convenciones del sector médico sanitario en Donostia-San/Sebastián.**

La totalidad de las y los asistentes pertenecientes a esta clase han acudido al evento en Donostia/San Sebastián. Entre las principales características de esta clase está el predominio de asistencia a congresos y convenciones del sector médico-sanitario y el origen exclusivamente estatal de las y los participantes. Durante su estancia en la ciudad está muy presente la realización de actividades relacionadas con la gastronomía y el turismo en la ciudad. Hay una fuerte presencia en este clúster de personas que se clasifican de “rentas medias”.

Otra característica de este grupo es que cuanto mayor es el estrato de edad mayor es el número de congresistas que lo componen. Así, la categoría más frecuente son las y los asistentes de 45 a 54 años.

El género femenino es más habitual en esta clase.

Aunque se alojan en todo tipo de establecimientos destacan los hoteles de 4 o 5 estrellas como los más utilizados.

La mayoría había estado en Euskadi con anterioridad y predomina entre las y los asistentes la intención de no volver a Euskadi por ocio.

**Clase 2.- (20%) Asistentes estatales a congresos y convenciones en Vitoria-Gasteiz que no realizan actividades de ocio.**

Las y los asistentes de esta clase son, en general, participantes en congresos y convenciones celebrados en Vitoria-Gasteiz. Se trata de público estatal y por tanto muy asociado al origen está el medio principal de transporte que han utilizado para acudir al evento: el coche.

Destaca en esta clase la mayor asistencia, en comparación con otras clases, de público local (Euskadi). Esto tiene varios efectos, el más llamativo es que se trata de turistas que no realizan actividades de ocio. Significativo es el bajo peso de las actividades de ocio cultural, así como los bajos pesos de turismo gastronómico o turismo de ciudad.

Hay una fuerte presencia de quienes habían estado con anterioridad en Euskadi y una menor probabilidad de volver por motivos de ocio.

Predominan en este grupo los hombres y las edades más significativas son de entre 25 y 44 años.

**3. mota. - (% 17) Atzerritik Bilboko batzar eta konbentzioetara etorri diren gazteak.**

Mota horretan, batzarkideen jatorria dela eta, hegazkina da Euskadira iristeko erabilitako garraiobide nagusia. Talde horretan, besteetan baino ugariagoak dira Frantziako, Britainia Handiko eta AEBko parte-hartzaileak. Nagusiki, sektore zientifikoarekin lotutako publikoa da. Gehienak lehen aldiz etorri dira Euskadira, eta aisiak erakarrita itzultzeko probabilitate handia dagoela adierazi dute. Euskadin daudenean, kultura-turismoko eta gastronomiako jarduerak egiten dituzte bereziki.

Talde horretan, emakumeak dira nagusi. Talde horretako pertsonen erdiak baino gehiago 25 eta 34 urte bitarteko adin-tartean daude. Bestalde, gehienak errenta ertainekoak dira.

**4. mota. - (% 17) Estatutik Bilboko eta Gasteizko mediku- eta osasun-arloko batzar eta konbentzioetara etorri diren pertsonak.**

Talde horretako pertsona gehienak Bilbon antolatutako batzar eta konbentzioetara joaten dira, baina kopuru handi batek ere Gasteizen egiten direnetan hartzen du parte. Parte-hartzaile gehienak Estatukoak dira, eta mediku- eta osasun-sektorekoak. Ia hiru laurden lehendik egonda zeuden Euskadin, eta aisia dela eta itzultzeko probabilitate handia dago. Hirian dauden bitartean, gastronomiarekin eta hiriko turismoarekin lotutako jarduerak egiten dituzte.

Gehienak 4 eta 5 izarreko hoteletan ostatatzen dira.

Errenta-mailari dagokionez, gehienek adierazten dute errenta-maila ertain/handia dutela.

Emakume baino gizon gehiago daude talde horretan, eta, adin guztietako batzarkideak badaude ere, 35 eta 44 bitarteko adin-tartekoak dira nagusi.

**5. mota. - (% 13) Atzerritik Donostiako batzar eta konbentzioetara etorri diren eta aisiagatik Euskadira itzultzeko asmorik ez duten parte-hartzaileak.**

Mota horretako batzarkideen ezaugarri nagusia honako hau da: ez dute Euskadira aisia dela eta itzultzeko asmorik. Ia guztiak atzerritarrak dira, eta Euskadira ekarri dituen ekitaldia Donostian egin da. Haien jatorria dela eta, hegazkina izan da Euskadira etortzeko garraiobide nagusia.

Nabarmendu behar da talde horretako pertsonen ia % 90 ez dela lehendik Euskadin egon. Hiriko egonaldian, kultura-turismoko, gastronomiako eta hiri-turismoko jarduerak egin dituzte. Emakume baino gizon gehiago daude, eta gehienak 45 eta 54 urte bitartekoak dira.

**Clase 3.- (17%) Jóvenes asistentes extranjeras/os a congresos y convenciones en Bilbao.**

Es característico de esta clase, asociado al origen de las y los congresistas, utilizar casi exclusivamente el avión como medio de transporte principal para llegar a Euskadi. En este grupo se concentran, en mayor número que en otras clases, las personas asistentes de Francia, Gran Bretaña y EEUU. Se trata de un público mayoritariamente asociado al sector científico. En su mayoría no había estado en Euskadi con anterioridad y manifiestan una probabilidad alta de volver por motivos de ocio. Una vez en Euskadi destaca el consumo de actividades de turismo cultural y gastronomía.

Predominan las mujeres. Casi la mitad de las personas que componen esta clase tienen entre 25 y 34 años y se clasifican, mayoritariamente, como rentas medias.

**Clase 4.- (17%) Asistentes estatales a congresos y convenciones del sector médico sanitario en Bilbao y Vitoria-Gasteiz.**

Aunque la mayoría de las y los participantes de esta clase lo hacen a congresos y convenciones celebrados en Bilbao hay también una parte importante que se localiza en Vitoria-Gasteiz. La práctica totalidad son estatales y sobresale entre ellos el peso del sector médico sanitario. Casi tres cuartas partes habían estado con anterioridad en Euskadi y con bastante probabilidad volverán por motivos de ocio. Durante su estancia realizan de actividades relacionadas con la gastronomía y también turismo en la ciudad.

Mayoritariamente se alojan en hoteles de 4 y 5 estrellas.

La categoría más frecuente en cuanto al nivel de renta en el que se clasifican es: "media/alta".

Superan los hombres a las mujeres y aunque hay congresistas de todas las edades el estrato predominante es entre 35 y 44 años.

**Clase 5.- (13%) Asistentes extranjeros a congresos y convenciones en Donostia/San Sebastián sin intención de volver a Euskadi por ocio.**

Entre las y los congresistas que se agrupan en esta clase, la principal característica es la falta de intención de volver a Euskadi por ocio. Prácticamente la totalidad son personas extranjeras y el evento que les ha traído a Euskadi se ha celebrado en Donostia/San Sebastián. Asociado a su origen, el medio de transporte principal para llegar a Euskadi ha sido el avión.

Una característica relevante de este grupo es que casi el 90% no había estado en Euskadi con anterioridad. Durante su estancia han realizado actividades de turismo cultural, gastronómicas y de turismo en la ciudad. Hay un mayor número de hombres que de mujeres y predomina el estrato de edad de 45 a 54 años.

**6. mota. - (% 12) Bilboko eta Gasteizko batzar eta konbentzioetara etorri diren eta aisia-jarduerarik egin ez duten pertsonak.**

Talde horretako ia pertsona guztiek ez dute aisia-jarduerarik egin Euskadin izan diren bitartean. Batzarkide gehienak Bilboko batzar edo konbentzioetara joan dira; gainerakoek Gasteizko ekitaldietan hartu dute parte.Talde horretan, ekonomia- eta merkataritza-arloko batzarretan parte hartu dutenak nagusi dira. Jatorriari erreparatuz gero, ia berdinak dira atzerriko eta Estatuko parte-hartzaileen portzentajeak (% 55 eta % 45, hurrenez hurren).

Jatorria alde batera utzita, batzarkide gehienek hegazkina erabili dute Euskadira iristeko. Gehienak gizonak dira, 25 eta 54 urte bitartekoak, eta errenta-maila ertain/handikoak.

**Clase 6.- (12%) Asistentes a congresos y convenciones en Bilbao y Vitoria-Gasteiz que no realizan actividades de ocio durante su estancia.**

Prácticamente la totalidad de las y los integrantes en esta clase no han realizado ninguna actividad de ocio durante su estancia en Euskadi. Aunque hay un mayor número de congresistas que ha asistido al congreso/convención en Bilbao también están presentes, aunque en menor medida, algunos de las y los asistentes a eventos en Vitoria-Gasteiz. Dentro de este grupo adquieren mayor relevancia las y los participantes en congresos económico-comerciales. En cuanto al origen, este se reparte casi proporcionalmente entre extranjeros (55%) y estatales (45%).

Independientemente de su origen el medio de transporte utilizado para llegar a Euskadi ha sido preferentemente el avión. La mayoría son hombres con edades comprendidas entre los 25 y los 54 años y con un nivel de renta declarada “media/alta”.

## Fitxa teknikoa

**Unibertsoa.**

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan antolatutako batzar eta konbentzioetan entzule edo hizlari gisa parte hartzeko Euskadiko **establezimendu publikoetan** ostatu hartzen duten turistak: kategoria guztietako hotelak, landetxeak eta kanpinak.

**Laginaren diseinua.**

- Erreferentzia-aldia: 2016-2017 aldia.
- Hautaketa-metodoa: Inkestak egiteko baimena eskatu zen Euskadiko hiriburuetan 2016ko ekainetik 2017ko uztailera bitartean egindako batzar eta konbentzio guztietan.
  Batzar batean baimena lortzen bazen, inkesta egiteko informatzaileak aukeratzen ziren, **ausaz,** entzuleen eta hizlarien artean.
- Behin betiko laginketa-puntuak: 20.000 pertsona inguru barne hartzen zituzten 46 laginketa-puntu ezarri ziren.

## Ficha técnica

**Universo.**

Conjunto de Turistas que, por asistir como oyente o ponente a *congresos y convenciones* celebrados en las capitales vascas, pernoctan en **establecimientos públicos** de la *C. A. de Euskadi*: hoteles, en sus diferentes categorías; agroturismos o casas rurales y campings.

**Diseño Muestral.**

- Periodo de Referencia: Año 2016-2017.
- Método de Selección: Solicitud de permisos de encuesta para todos los congresos y convenciones celebrados en las capitales vascas desde junio de 2016 a julio de 2017.
  En aquellos en los que se conseguía el permiso oportuno, se seleccionaba **aleatoriamente**, entre asistentes y ponentes, a las personas informantes de la encuesta.
- Puntos de Muestreo Finales: Se establecieron 46 puntos de muestreo que han afectado a cerca de 20.000 asistentes.

***LAGINKETA PUNTUAK: BATZAR/KONBENTZIOAK ETA PARTE-HARTZAILEAK***
***PUNTOS DE MUESTREO: NÚMERO DE CONGRESOS/CONVENCIONES Y ASISTENTES***

| 2016. urtea Año 2016 | Batzar / konbentzioa Congreso / convención | Parte-hartzaileak Asistentes |
|---|---|---|
| GUZTIRA / TOTAL | 17 | |
| **2016 - Ekaina / 2016-Junio** | **2** | |
| Teknologikoa / Tecnológico | 1 | 200 |
| Zientifikoa / Científico | 1 | 300 |
| **2016 - Uztaila / 2016-Julio** | **2** | |
| Zientifikoa / Científico | 2 | 550 |
| **2016 - Iraila / 2016-Septiembre** | **4** | |
| Kulturala / Cultural | 2 | - |
| Zientifikoa / Científico | 1 | 1.600 |
| Medikuntza / Osasuna Médico-Sanitario | 1 | 250 |
| **2016 - Urria / 2016-Octubre** | **5** | |
| Zientifikoa / Científico | 1 | 400 |
| Medikuntza / Osasuna Médico-Sanitario | 2 | 2.900 |
| Teknologikoa / Tecnológico | 1 | 200 |
| Kulturala / Cultural | 1 | - |
| **2016 - Azaroa / 2016-Noviembre** | **2** | |
| Beste batzuk / Otros | 2 | 300 |
| **2016 - Abendua / 2016-Diciembre** | **2** | |
| Teknologikoa / Tecnológico | 1 | - |
| Ekonomia / Merkataritza Económico-Comercial | 1 | 500 |

*IBILTUR batzar eta konbentzioak, 2017-2016*
*IBILTUR congresos y convenciones 2017-2016*

| 2017. urtea Año 2017 | Batzar / konbentzioa Congreso / convención | Parte-hartzaileak Asistentes |
|---|---|---|
| GUZTIRA / TOTAL | 29 | |
| **2017 - Otsaila / 2017-Febrero** | **1** | |
| Zientifikoa / Científico | 1 | 100 |
| **2017 - Martxoa / 2017-Marzo** | **5** | |
| Zientifikoa / Científico | 2 | 250* |
| Beste batzuk / Otros | 3 | 2.075 |
| **2017 - Apirila / 2017-Abril** | **3** | |
| Unibertsitatea / Universidad | 1 | 150 |
| Ekonomia / Merkataritza Económico-Comercial | 1 | 450 |
| Medikuntza / Osasuna Médico-Sanitario | 1 | 1.400 |
| **2017 - Maiatza / 2017-Mayo** | **7** | |
| Kulturala / Cultural | 1 | 350 |
| Ekonomia / Merkataritza Económico-Comercial | 2 | 600 |
| Medikuntza / Osasuna Médico-Sanitario | 2 | 3.450 |
| Zientifikoa / Científico | 1 | 200 |
| Beste batzuk / Otros | 1 | 200 |
| **2017 - Ekaina / 2017-Junio** | **10** | |
| Medikuntza / Osasuna Médico-Sanitario | 4 | 1.020 |
| Ekonomia / Merkataritza Económico-Comercial | 2 | - |
| Teknologikoa / Tecnológico | 2 | 600 |
| Zientifikoa / Científico | 2 | 550 |
| **2017 - Uztaila / 2017-Julio** | **3** | |
| Kulturala / Cultural | 1 | 200 |
| Zientifikoa / Científico | 2 | 400 |

*IBILTUR batzar eta konbentzioak, 2017-2016*
*IBILTUR congresos y convenciones 2017-2016*

**Galde-sorta.**

Informazioa galde-sorta baten bidez bildu da. Hain zuzen, informazio-arlo hauek landu dira:

- ✓ Bidaiaren arrazoia.
- ✓ Egonaldiko aisia-jarduerak.
- ✓ Gastuak.
- ✓ Bidaia.
- ✓ Balorazioak.
- ✓ Garraiobideak.
- ✓ Informazio soziodemografikoa.

**Cuestionario.**

La recogida de información se ha realizado mediante cuestionario estructurado en las siguientes áreas de información:

- ✓ Motivo del viaje.
- ✓ Actividades de ocio durante la estancia.
- ✓ Gastos.
- ✓ Viaje.
- ✓ Valoraciones.
- ✓ Medios de Transporte.
- ✓ Información Sociodemográfica.

**Elkarrizketarako teknika.**

Elkarrizketa pertsonala, tableta erabilita. Tabletak aukera ematen du landa-lanean jasotako informazioa gordetzeko, linean baliozkotzeko, erregistratzeko eta telematikoki bidaltzeko.

**Técnica de Entrevista.**

Entrevista personal asistida con *Tablet* que permite la grabación, validación en línea, registro y envío telemático de la información recogida en campo.

**Inferentzia-metodoa.**

- Erreferentzia-esparrua.
  Landa-lana 2016an eta 2017an egin bada ere, landa-lanarekin batera adierazi beharreko kolektiboa zehazteko azken urte horretako daturik ez daukagunez, Gasteiz, Bilbo eta Donostiako *Convention Bureau* bulegoek 2016an zenbatutako batzar eta konbentzioetan parte hartutako pertsonak hartu dira goratzearen erreferentzia-esparrutzat.

**Método de Inferencia.**

- Marco de Referencia.
  Aunque el trabajo de campo se ha desarrollado entre los años 2016 y 2017, al no disponer de datos de este último año para determinar el colectivo a representar de forma paralela al desarrollo del trabajo de campo, se ha optado por tomar como marco de referencia de la elevación a las y los asistentes a congresos y convenciones contabilizados en 2016 facilitados por los *Convention Bureau de Vitoria-Gasteiz, Bilbao y Donostia/San Sebastián*.

***EUSKADIKO 2016. URTEKO BATZAR ETA KONBENTZIO JARDUERA***
***ACTIVIDAD DE CONGRESOS Y CONVENCIONES EN EUSKADI 2016***

| | GUZTIRA / TOTAL | Vitoria-Gasteiz | Bilbo / Bilbao | Donostia / San Sebastián |
|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA / TOTAL | 83.255 | 4.380 | 48.131 | 30.744 |
| Batzarrak / Congresos | 64.296 | 4.080 | 30.600 | 29.616 |
| Konbentzioak / Convenciones | 18.959 | 300 | 17.531 | 1.128 |

*2016ko MICE turismoaren jarduera. Gasteiz, Bilbo eta Donostiako Convention Bureau bulegoak*
*Actividad MICE 2016. Convention Bureau de VitoriaGasteiz, Bilbao y Donostia-San Sebastián*

- Laginaren tamaina.
  1.729 erantzun baliagarri lortu dira.

- Tamaño Muestral.
  Se han conseguido 1.729 respuestas válidas.

***HIRI BAKOITZEKO INKESTA KOPURUA, BATZAR ETA KONBENTZIOAREN ESPARRUAREN ARABERA***
***ENCUESTAS POR CIUDAD DE CELEBRACIÓN SEGÚN ÁMBITO DEL CONGRESO/CONVENCIÓN***

| | GUZTIRA / TOTAL | Estatua / Estatal | Nazioartea / Internacional |
|---|---|---|---|
| GUZTIRA / TOTAL | 1.729 | 1.014 | 715 |
| Vitoria-Gasteiz | 508 | 478 | 30 |
| Bilbo / Bilbao | 651 | 357 | 294 |
| Donostia / San Sebastián | 570 | 179 | 391 |

*IBILTUR batzar eta konbentzioak, 2017-2016*
*IBILTUR congresos y convenciones 2017-2016*

- Laginaren errorea.
Jarraian, lagin-errore teorikoei buruzko kalkulu bat azalduko dugu, % 95,5eko konfiantza-mailakoa (hori horrelakoa izateko probabilitatea), populazio finituei (100.000 elementu baino gutxiago) eta % 50eko kasurik txarrenerantz banatzen diren ezaugarri dikotomikoei buruzkoa.

- Error Muestral.
Se ofrece a continuación una estimación de los errores teóricos muestrales calculados para poblaciones finitas (menos de 100.000 elementos), con un nivel de confianza del 95,5% (probabilidad de que ello sea así) y para características dicotómicas que se distribuyen al caso más desfavorable del 50%.

***EUSKADIKO 2016. URTEKO BATZAR ETA KONBENTZIO JARDUERA***
***ACTIVIDAD DE CONGRESOS Y CONVENCIONES EN EUSKADI 2016***

| | GUZTIRA / TOTAL | Vitoria-Gasteiz | Bilbo / Bilbao | Donostia / San Sebastián |
|---|---|---|---|---|
| Erreferentzia-esparrua<br>Marco de Referencia | **83.255** | 4.380 | 48.131 | 30.744 |
| Inkestak<br>Encuestas | **1.729** | 508 | 651 | 570 |
| **Laginaren errorea**<br>**Error Muestral** | **±2,4%** | ±4,2% | ±3,9% | ±4,1% |

*IBILTUR batzar eta konbentzioak, 2017-2016IBILTUR congresos y convenciones 2017-2016*

- Goratzailearen kalkulua.

**Goratzailea** kalkulatzeko prozesuak bi fase ditu:

➢ **1. fasea.** Laginketa-puntuak osatu zituzten batzar eta konbentzioetako parte-hartzaileen erreprodukzioa, puntu horietan lortutako inkestetan oinarrituta.

Horretarako, batzar eta konbentzio bakoitzeko, aldagai biderkatzaile bat (*GOR1*) sortu da, formula honen arabera:

**(GOR1)i=Ci/ci**

Hartan, “Ci” da "i" batzarrera edo konbentziora joan diren parte-hartzaileen[1] kopurua, eta “ci” da ekitaldi horretan lortutako inkesta-kopurua.

➢ **2. fasea.** Hiri bakoitzeko parte-hartzaileen erreprodukzioa, aurreko fasean lortutako datuetan oinarrituta.

➢

Fase horretan, beste aldagai biderkatzaile bat (*GOR2*) sortzen da, formula hau erabiliz

**(GOR2)i=Si/si**

Hartan, “Si” da “i” hiriko batzar eta konbentzioetara joan diren pertsonen kopurua (Gasteiz, Bilbo eta Donostiako *Convention Bureau* bulegoen datuen arabera), eta “si” da 1. fasearen arabera goratutako inkesten datua (hiri bakoitzekoa).

Bi goratzaile horiek biderkatuz, inkesten datuei aplikatzen zaien azken goratzailea lortzen da:

**GOR=GOR1xGOR2**

- Cálculo del Elevador.

El proceso de cálculo del **elevador** considera dos fases:

➢ **Fase 1**.- Reproducción de las y los asistentes a los congresos y convenciones que constituyeron los puntos de muestreo, a partir de las encuestas conseguidas en esos puntos.

Para ello, se genera para cada congreso/convención al que se ha asistido una variable “multiplicador” (*ELE1*) en base a la siguiente fórmula:

**(ELE1)i=Ci/ci**

donde “Ci” refleja el número de asistentes[2] al congreso/convención “i” y “ci” representa al número de encuestas conseguidas en ese evento.

➢ **Fase 2**.- Reproducción de las y los asistentes, por ciudad de celebración, a partir de los datos inferidos en el proceso anterior.

En esta fase se genera una nueva variable “multiplicador” (*ELE2*) aplicando la fórmula:

**(ELE2)i=Si/si**

donde “Si” recoge el número de delegados asistentes a congresos y convenciones de la ciudad “i” (según datos de los *Convention Bureau de Vitoria-Gasteiz, Bilbao y Donostia/San Sebastián*) y “si” es el dato (por ciudad) de las encuestas elevadas según la fase 1.

El elevador final que se aplica a los datos de las encuestas se calcula multiplicando estos dos:

**ELEV=ELE1*ELE2**

[1] Datu hori ez zegoenean, 1 balioa eman zaio GOR1 aldagaiari.
[2] Cuando no se disponía de ese dato se ha optado por darle valor “1” a ELE1.

BASQUE TOUR
turismoaren
euskal agentzia
agencia vasca
de turismo



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Herri-baltzua EUSKO JAURLARITZA
Sociedad Pública del GOBIERNO VASCO